


Praktika onen gida



PROBATU NAHI?



#KMO

#BERTAKOA

EUSKARA

Zergatik gida hau?

Jaiak sozializaziorako eremua eta kultur kontsumorako espazio garrantzitsua dira. Hizkuntza eskubideak egikaritzeko eta hizkuntza ohituretan eragiteko esparru ezin hobe.

Horregatik jaiak antolatzerakoan hizkuntza irizpideak kontuan hartzea ezinbestekoa da.

Gida honen xedea antolatzaile eta eragile ezberdinei bide horretan laguntzea da.

Euskarak desabantaila egoeran jarduten duenez, beharrezkoa da hizkuntzari bultzada ematea eta euskaldunon eskubideak aktiboki babestea, diskriminazio positiboko neurriak aplikatuz.



EUSKALDUNTZE INDIZEA AIARALDEAN	
2021eko datuak	
AIARA	%51
AMURRIO	%47
ARAKALDO	%65
ARRANKUDIAGA-ZOLLO	%71
ARTZINIEGA	%47
LAUDIO	%45
OKONDO	%50
OROZKO	%73
URDUÑA	%43

PROGRAMAZIOA

Egitaraua osatu aurretik hizkuntza irizpideak ezarri behar dira bi faktore kontuan hartuta: zein publikorentzat den ekintza bakoitza eta zein den euskalduntze indizea*.

Umeak

Aiaraldean % 100 euskaraz eskolatuak izanik haientzako eskaintza % 100 euskaraz beharko luke izan.

Gazteak

Eskualdean gazteen artean euskalduntze indizea oso altua izan beharko luke, horregatik haiei zuzendutako programazioa ia guztiz euskaraz izatea gomendatzen da.

Helduak

Tokiko euskalduntze indizetik gora egon behar du publiko honentzako euskarazko eskaintzaren portzentajea.

Euskararen presentzia bermatu behar da programazioaren alor guztietan.



Komunikazioa

Egitaraua

Gutxienez euskaraz argitaratu behar da. Elebitan bada, euskarari lehentasuna eman behar zaio tipografikoki eta espazioan nabarmenduz. Informazio osoa eskaini eta euskarazko ekintzei ikusgarritasuna emateko Euskararen Semaforoarekin etiketatu.

Kartelak

Gutxienez euskaraz argitaratu behar da. Elebitan bada, euskarari lehentasuna eman behar zaio tipografikoki eta espazioan nabarmenduz. Informazio osoa eskaini eta euskarazko ekintzei ikusgarritasuna emateko Euskararen Semaforoarekin etiketatu. Euskararik gabeko kartelak baztertu behar dira.

Kanpaina

Jai eremuan euskararen erabilera bultzatzeko komunikazio kanpaina bat egitea lagungarria izango da. Horretarako Gora Aiaraldeko Jai Euskaldunak! dinamikak proposamen konkretuak plazaratuko ditu.

Euskararen Semaforoa

Eskuratu azalpenak eta diseinuak: labur.eus/euskararenSemaforoa



Esatariak


Ekitaldietako aurkezpenak zein bozgorailuetatik ematen den informazio orotan euskararen presentzia bermatu behar da, ekitaldiaren hizkuntza edozein delarik ere. Aurkezpena edo informazioa elebitan izango bada, lehenengo euskaraz emango da, euskalduna gutxienez elebiduna baita. Beraz esatariak euskaldunak izan behar dira.



Paisaia linguistikoa

Ohar, kartel, errotulu, zerrendak... euskaraz edo elebitan izan behar dute, betiere euskarari lehentasuna emanez.

Sare sozialetan, prentsa oharretan, adierazpen publikoetan... euskararen presentzia bermatu behar da. Ele bitan izatekotan betiere euskarari lehentasuna emanez.



Arreta

Informazio puntuak, lehiaketetarako izen emate mahaiak... Horrelako lekuetan, beti euskaldunen bat izatea bermatuko dugu eta lehen hitza beti euskaraz izango da. Gazteen kasuan euskarari eutsiko diogu, ulertzen duela ikusiz gero. Euskarazko inprimakiak izatea bermatu behar da baita.

01

Lehen hitza euskaraz

Euskaldunen bat izatea bermatu

02

Haurrak eta gazteak

Euskarari eutsi



Txosnak

Barran jarduten dutenak euskaldunak izatea onena, baina gutxienez txanda bakoitzean pertsona euskaldun bat izatea bermatu behar da.

Agurrak eta lehen hitza beti euskaraz. Gazteen kasuan euskarari eutsiko diogu ulertzen dutela ikusiz gero.

Bozgorailuetako musikaren % 65 gutxienez euskaraz izango da ordutegi osoan.

Gida honetako programazio eta komunikazio alorreko irizpideak ere beteko dira txosnan.

Ostalaritza

Arretan jarduten dutenak euskaldunak izatea onena, baina gutxienez txanda bakoitzean pertsona euskaldun bat izatea bermatu behar da.

Bozgorailuetako musikan euskarazko musikaren presentzia bermatzea garrantzitsua da (%50), horretarako hainbat baliabide dituzue eskura hemen.

Paisaia linguistikoa euskaraz izatea beharrezkoa da: prezioen zerrendak eta bestelako oharra euskaraz jarritz. Ele bitan badira, euskarari lehentasuna emango zaio tipografikoki eta aurretik jarritz. Itzulpenetarako laguntza behar izatekotan, zure udaleko euskara arlora joan eta informatu dauden aukerez.



Eskerrik asko!

 www.aiaraldekoeuskaigintza.eus

 info@aiaraldekoeuskaigintza.eus

